


Lehen Mundu Gerrako beste Paris



CLAUDE FAIX

Ezkerrean, *The Illustrated London News* aldizkariak 1920an argitaratutako Maisons-Laffitte herriaren planoak; herriaren jatorrizko elementuak kolore ilunez daude, eta erreplikaren elementuak, zuriz. Goian, aldizkari berean argitaratutako "trenbide" faltsuaren argazkia; egitura horretan, argizatze berezian bidez, mugitzen ari ziren trenak irudikatu nahi zituzten. Eta azpian, Maisons-Laffitte 1944an; Lehen Mundu Gerran bonbardatua izan zedin prestatu zuten arren, orduan ez zuen aireko erasorik jaso. Bigarren Mundu Gerran bai, ordea.

PARIS, 1917. Lehen Mundu Gerran aireko bonbardaketez garrantzi handirik izan ez zuten arren, hiriburuko agintariak eta Frantziako armadako arduradunak kezkatuta zeuden, zeppelin alemaniarrek bi urte lehenago Londresen eragin zituzten triskantzak ikusita. Balizko erasoen aurrean nola babestu ez zekitenez, erasoak "bideratzea" erabaki zuten: Parisen erreplika bat eraikiko zuten, amu gisa, alemaniarrek hiriburu faltsua suntsi zezaten benetakoaren ordez.

Lehenik kokapena aukeratu zuten. Hiriburuaren iparraldean, 24 kilometrorra, Sena ibaiak Maisons-Laffitte Herrian egiten zituen bihurguneak Parisekoen antzekoak zirela ikusi zuten. Hantxe eraikiko zuten Paris faltsua.

Parisko eraikin enblematikoenak egurrez eraikiko zituzten. Baina pilotu alemaniarrek gauez engainatzeko, Argiaren Hiriaren erreplikak horixe beharko zuten, argia. Finantzaketa pribatuaren bidez, Fernand Jacopozzi elektrizitate ingeniaria kontratatu zuten. Haren zeregina fabriketako jarduna, trenen joan-etorria, eta,

finean, hiriburuko bizitza argiztapenaren bidez irudikatzea izan zen. Erreplikan egindako ahalegina eskertzeko, Pariseko udalak Eiffel dorrea argiztatzeko enkargua egin zion Jacopozziri, gerra amaitu eta gero.

1918an hasi ziren Paris berriko lanak. Egurrezko Gare du Nord geltokia altxa zuten, eta Champs Elysées-en itxura zuen eremua ere prestatu zuten. Horrez gain, Opera, Garaipen Arkua eta beste elementu ezagun batzuk eraikitzeko asmoa zuten, eta Saint-Denis, Aubervilliers eta beste auzune batzuk ere aurrekusten zituen proiektuak. Baina 1918ko azaroan sinatutako armistizioak proiektua bertan behera utzi zuten. Paris faltsuaren eraginkortasuna egiaztatu gabe amaitu zen gerra.

Frantziarrek ederki aurreikusitako zuten hegazkinen erasoek gerora izango zuten garrantzia, baina oraindik ez zekiten radarrek ezin direla giza ikusmena bezain erraz engainatu. ■



Arrastoak

Mazinger Z-k 40 urte bete ditu



MAZINGER Z manga komikiaren lehen atala 1972ko irailean argitaratu zuten Japonian, eta berehala, abenduan, izen bereko animea emititzen hasi zen Fuji telebista katea. Marrazki bizidunak Europara iristerako –TVE 1978an hasi zen ematen, eta M6 1988an– bai manga eta bai animea aspaldi bukatuta zeuden Japo-

nian, komikia 1973an eta telesaila 1974an. Indarkeria gehiegi erakusten zuelako kritikatu zuten arren –atalen bat zentsuratzeraino–, barrutik tripulatutako lehen robotak aitzindari izan zen, eta belaunaldi oso baten tizat ikono bihurtu zen. Irudian, Mazinger Z eta bularretik misilak jaurtitzen zituen Afrodita A. ■